

ASUN AGIRIANO, GALTZAGORRI ELKARTEAREN LEHENDAKARIA

“Formazioa duten bitartekariak behar ditu euskal haur eta gazte literaturak”

Euskal haur eta gazte literaturak arlo askotan ditu gabezia handiak, Asun Agirianoren ustez, eta horiei konponbidea bilatzen saiatzen ari da Galtzagorri Elkartea.

JUAN LUIS ZABALA. ARRASATE

Nikaraguan piztu zitzaion haur eta gazte literaturaren inguruko zaletasuna Asun Agiriano Galtzagorri Elkartearen lehendakariari (Arrasate, 1963). Matagalpa herriko udal bibliotekan haur bibliotekaren sorreran parte hartu nuen, ekarri du gogora. Bilduma beste lurralde batzuetako emariekin hornitzen zen gehienbat: Ipar Europako (Alemania, Suedia, Finlandia...) idazleen albumak. Ilustrazioak nagusi diren edizio ederreko ipuinak ziren. Arrasateko udal haur bibliotekaria da, eta duela urtebete izendatu zuten Galtzagorri Elkartearen lehendakari. Estatutuen arabera, beste urtebetez jarraituko du karguan, ondoren beste bi urtez luzatzeko aukerarekin.

Inoiz baino liburu gehiago argitaratzen da, eta idazleen eta adituen ustez osasun ona du euskal haur eta gazte literaturak. Zer iritzi duzu zuk, pertsonalki?

Nik kalitateaz baditut zalantzak. Argitaratzen den guztia urtero irakurriz eta jarraituz, osasun onaren kontzeptuaz zalantzak izateko arrazoiak badirela uste dut.

Zein dira akats eta hutsune nagusiak?

Jatorrizko albumen arloan dago gabezia bat, adibidez. Hemengo argitaletxeak ari dira pausoak ematen, baina beti itzulpenera jotzen dute. Kanpoko argitaletxeak ari dira albumetan euskararen presentzia sendotzen -Kalandraka, adibidez-, baina hemengoek ez dituzte albumak bereziki zaintzen, ez edizioaren aldetik, ez itzulpenaren aldetik, ez hemengo ilustratzaileei aukera ematearen aldetik...

Eta gainerakoan? Bestelako liburuetan?

Beste arlo batzuetan ere badaude gabeziak, komikietan esaterako, Saure baita ia-ia euskarazko komikiak argitaratzen dituen argitaletxe bakarra. Liburu informatiboetan ere gabezia handiak daude, bai entziklopedietan eta bai eskolan ikasten diren gaien inguruko liburuetan: osasunari buruzkoak, sexologiari buruzkoak, ingurugiroari buruzkoak... Gai asko jorratzeko, ikastetxeetako ikasleak erdarazko liburuetara jotzera behartuta daude. Irakasleek ere igarriko dute gabezia hori. Euskal argitaletxeek ardura handia dute horretan, nire ustez.

Irakurleak liburua zuzenean aukeratzen ez duenez, haur eta gazte literaturaren munduan garrantzi handia dute mota guztietako bitartekariak. Zer egoeratan dago euskal haur eta gazte literatura arlo horretan?

Bitartekarien presentziak handiagoa izan beharko luke : irakasleak, bibliotekariak, gurasoak, liburu-dendetako langileak... Adibidez, irakasleak, oro har, ez daude oso formatuta literaturan, ez dira iristen produktu berriak

irakurtzera. Literaturan interesatuta dagoen jendea behar dela uste dut. Formazioa duten bitartekariak behar ditu euskal haur eta gazte literaturak. Bitartekarien esparrua zabaldu behar da, eta interesa piztu.

Behinola aldizkarian tarte handia hartzen du liburu kritikak, eta hedabide batzuetan ere egiten dira haur eta gazte literaturako liburuen kritikak eta erreseinak. Zer iritzi duzu oro har arlo horretan egiten den lanaz?

Behinola aldizkariak 15. zenbakia kaleratuko du aurki, eta liburuak irakurri eta erreseinatzeko jendearen falta sumatzen da. Kritika egiteko ausardia falta da; baita formazioa ere, baina hori, neurri handi batean, irakurriz eskuratzen da. Beraz, arazoa haur eta gazte literatura irakurriko duten bitartekarien falta da. Behinola Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako udal biblioteka guztietara iristen da, baina ez adibidez, ikastetxe guztietara. Irakasleen formaziorako oso garrantzitsua dela uste dugu eta erronka horri ere eutsi nahi diogu.

Literatura Mintegia ere formaziora bideratua dago.

Hainbat lurraldetako jendea biltzen du Literatura Mintegiak larunbat goizetan Donostian, eta euskaraz argitaratzen den haur eta gazte literaturako liburu guztiak irakurtzen dituzte. Ikasturte honetan jarri dugu abian mintegia, beharra ikusten genuelako. Eta ilustrazioei buruzko ikastaroak ere egin ditugu oraindik orain, asmo horrekin. Gure elkarteak haur eta gazte literatura bultzatuko badu, guk jakin egin behar dugu. Baina ez da aski sei edo zortzi lagunek jakitea, ahalik eta bazkide gehiengana iritsi behar dugu.

Artikulu bat argitaratu duzue Galtzagorriko hainbat kidek, Euskadi Literatura sarietan ez duzuela inolako presiorik jaso argitzeko. Zerk bultzatu zaituzte artikulu hori argitaratzera?

Galtzagorrik azkeneko lau zpabost urteetan hartu du parte Euskadi Sarietan. Jaurlaritzatik deitzen digute eskatzeko Galtzagorriko bazkide batzuk egon daitezen haur eta gazte literaturaren arloko epaimahaian. Guk orduan elkarteko kideengana jotzen dugu, lan hori egiteko prest dagoen jendearen bila. Parte hartu dudan urteetan, nik ez dut inoiz ikusi Jon Alonsok bere artikuluan aipatzen duenaren antzeko ezer, eta hori esateko asmoz idatzi nuen artikulua. Baina beste asmo bat ere banuen: helduen literaturaz gain, haur eta gazte literatura ere badagoela gogoraraztea. Euskal literaturaz hitz egitean -ez bakarrik Jon Alonsoren artikulua kasu-, helduen literaturaz hitz egiten da, eta haur eta gazte literatura anaia txikia da, baina gutxietsia. Euskadi Sarietan haur eta gazte literaturaren arloan ere lan egiten dela esan nahi nuen. Hasieran neuk bakarrik sinatzeko asmoa nuen, baina gero pentsatu nuen nirekin batera lan egindako batzuei ere zabaltzea, eta haiek ere sinatu zuten artikulua nirekin batera.

Euskadi Literatura Sarietan aldaketak egitearen aldekoa zara, ala dauden bezala utzi behar direla uste duzu?

Urtero proposatzen dugu -eta halaxe jasota dago aktetan- haur eta gazte literaturaren arloan ilustratzaileei ere eman beharko litzaiekeela saririk. Diotenez, oraingo aurrekontuekin hori ezinezkoa da. Beste aldaketa txiki batzuk ere proposatu ditugu. Pentsa daiteke akaso iritsi dela proposamen guztiak jasotzeko tenorea -bai gureak, bai Jon Alonsorenak eta Utikan Euskadi Sariak manifestua sinatu dutenenak, bai gainerako guztiak-, eta sariak hobetzeko zer egin daitekeen aztertzeko.